
FORU

AGINDUA



Nafarroako
Gobernua

NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO UNIBERTSITATEAZ
KANPOKO IKASTETXE PUBLIKOETAN ETA IKASTETXE
PRIBATU ITUNDUETAN BIZIKIDETZA ARAUTZEN DUENA
GARATZEKO **EREDUAK ETA IRADOKIZUNAK**



**NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO UNIBERTSITATEAZ
KANPOKO IKASTETXE PUBLIKOETAN ETA IKASTETXE PRIBATU
ITUNDUETAN **BIZIKIDETZA ARAUTZEN** DUEN 204/2010
FORU AGINDUA ABENDUAREN 16KOA GARATZEKO **EREDUAK
ETA IRADOKIZUNAK.****



Titulua:

204/2010 Foru Agindua, abenduaren 16koa, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan eta ikastetxe pribatu itunduetan bizikidetzara arautzen duena. Garatzeko ereduak eta iradokizunak.

Txostenaren egilea:

Bizikidetzarako Aholkularitza, Hezkuntza Departamentua

© NAFARROAKO GOBERNUA

Hezkuntza Departamentua, 2010

Diseinua eta maketazioa: Cobo-Munárriz Diseño Gráfico

Imprimaketa: Gráficas Urdín

AURKIBIDEA

1. eredia	Lkastetxeko bizikidetza plana	7
2. eredia	Lkastetxeko bizikidetza planaren urteko zehaztapena.....	11
3. eredia	Lkastetxeko bizikidetza planaren urteko zehaztapenaren memoria	13
4. eredia	Eskola jazarpena gertatzen denean erabili beharreko protokoloa. Formularioak sartu dira	15
5. eredia	Hezkuntza esparruan genero-indarkeriako kasu bat gertatzen denean jarduteko gida	23
6. eredia	Lkastetxean hezkuntza bitartekaritzako programa ezartzea.....	25
7. eredia	Hezkuntza bitartekaritzako prozesua.....	27
8. eredia	Lkastetxean bizikidetza ebaluatzeko adierazleen zerrenda. Iradokizuna	35

Eredu guztiak irakasleen eskura daude Word formatuan, Bizikidetza Aholkularitzaren webguneko Irakasleak atalean. Eredu horiek aldatzeko modukoak dira.

SARRERA

Eskuliburu honetako orientazioez, ereduez eta iradokizunez gainera, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak behar den laguntza eta aholkua emanen du 47/2010 Foru Dekretuan eta abenduaren 16ko 204/2010 Foru Aginduan araututakoa zuzen aplikatzeko.

Hezkuntza Departamentuko ikuskapen eta lege zerbitzuek orientabideak emanen dituzte legezko xedapen eta interpretazioei dagokien ororen gainean.

Era berean, Bizikidetza Aholkularitza zerbitzu publikoa da eta haren helburua da irakasleei, ikasleei eta familiei orientabideak ematea eskolako gatazkak ebaztearen, berdinen arteko jazarpenaren eta bizikidetza planen eta antzeko gaien gainean. Aholkularitzak materialak argitaratu ditu Hezkuntza Departamentuko webgunean eta, horretaz gainera, esku-hartze eta neurri berariazko egoetarako bestelako materialak eman diezazkioke hala eskatzen dituenari.

1. eredia

IKASTETXEKO BIZIKIDETZA PLANA PRESTATZEKO EREDUA

Bizikidetza plana ikastetxeko hezkuntza proiektuan sartuko da eta 204/2010 Foru Aginduaren 11. artikuluko edukiak izan eta garatuko ditu, gutxienez. Hona hemen zenbait zehaztapen, ikastetxeari eduki horiek gauzatzeko lagungarri gerta dakizkiokeenak.

BIZIKIDETZA PLANA

Ikastetxea:

- a) Bizikidetzaren egoera ikastetxean.
- b) Helburu orokorrak.
- c) Bizikidetza batzordea. Eraketa eta eginkizunak.
- d) Jarduera lerroak.
- e) Indarkeria mota desberdinen aurrean jarduteko protokoloak.
- f) Bizikidetza planaren urteko zehaztapena.
- g) Bizikidetzaren araudia.
- h) Ebaluazioa

Sinadura eta data:

ZEHAZTAPENAK

a) Bizikidetzaren egoera ikastetxean. Egoeraren azterketa, alde aurretiko ebaluazio batean oinarritua. Indarguneak eta hobetu daitezkeenak. Ikastetxeak gatazkei ematen dizkien erantzunak eta erantzun horien emaitzak. Lehen atal honetan erabilitako balorazio-tresnak. Plana ikastetxeko egituretan eta dokumentuetan txertatzea. Hezkuntza elkarteko sektore bakoitzak zer-nola hartzen duen parte eta planaren garapena. Ikastetxeak inguruan eskura izan ditzakeen erakundeak.

Bizikidetzaren planean ikastetxean hautemandako beharrak sartuko dira. Horretarako, ikastetxeek irakasleei, ikasleei eta familiei galdetu egingen diete beharrak hautemateko, helburuak lehenesteko, jarduerak proposatu eta egiteko eta bizikidetzaren etengabeko hobekuntza sustatzen duten neurriak ezartzeko.

b) Helburu orokorrak. Alde batera utzita ikastetxeak, bere autonomiaren arabera, izan ditzakeen bestelako helburuak, ikastetxeko bizikidetzaren planaren helburuak beti izanen dira Foru Aginduko 10. artikuluan ezarritakoak.

c) Bizikidetzaren batzordea eta beste egitura batzuk. Bizikidetzaren batzordearen eraketa eta eginkizunak Foru Aginduko 5. artikuluan xedatutakoaren arabera izanen dira.

d) Ekintzarako ildoak. Ekintzarako ildoak ezarritako helburuak lortzera bideratuko dira eta bizikidetzaren hobetzeko aurrez prestatutako proiektuak eta jarduerak sartuko dira haietan. Ikastetxeak bere ekintzarako ildoak zehaztuko ditu. Honako hauek dira garrantzitsuenak:

- ▶ Bitartekaritza gatazketan. Prozedurak eta arduradunak.
- ▶ Bizikidetzaren plana diseinatu eta etengabe garatzeko lanetan parte hartzea bultzatzeko tresnak, baita edozein iradokizun biltzea ere. Hezkuntza elkarteko edozeinek bizikidetzaren hobetzeko iradokizunak eta proposamenak egin ditzake.
- ▶ Arlo guztiek, baita tutoretza lanak ere, ekarpenak egingen dituzte bizikidetzaren hobetzeko eta bizikidetzaren ikasteko.
- ▶ Curriculumeko neurriak. ¿Nola egin aurre bizikidetzari curriculumean?
- ▶ Ikasgela kudeatzeko prozesuak.
- ▶ Hezkuntza emozionala, balioetan oinarritutako hezkuntza eta gizartean eta herritar gisa jarduteko gaitasuna garatzeko esku-hartzeak.
- ▶ Jarduera osagarriak, eskolaz besteko jarduerak eta ikastetxearen inguruko edozein.
- ▶ Prestakuntza ekintzak. Hezkuntza elkarteko kide guztiendako prestakuntza proposamenak. Ikastetxeak behar horiei erantzuteko dituen baliabideak.
- ▶ Familiekin erlazionatzeko sistemak, maila kolektiboan nola bana-banakoan.

- ▶ Inguruko bestelako entitate edo erakundeekiko koordinazioa.
- ▶ Bizikidetzarako konpromisoak.
- ▶ Plana ezagutarazteko tresnak.
- ▶ Hezkuntzako diziplina-neurriak eta neurri zuzentzaileak batera ezartzeko egin beharreko prozedura, ikasleen aldetik bizikidetzarako kaltegarriak diren jarreraren aurrean. Prozedura hori berariaz aipatu da bizikidetzaren araudian.
- ▶ Gatazkei aurrea hartzeko eta/edo modu baketsuan ebazteko bestelako jarduerak eta estrategiak.

e) Jarduera protokoloak indarkeriaren aurrean. Ikastetxeek indarkeri egoerei aurre egin behar diete. Beraz, beharrezkoa da alde aurretik euren jarduera prozedurak diseinaturik izatea. Jarduera hori ikastetxeetan zehazteko ereduak ere erantsi dira.

f) Bizikidetzaren planaren urteko zehaztapena eta txostena. Urteko zehaztapena eta txostena ikasturte bakoitzean prestatuko dira eta gutxienez atal hauek eduki beharko ditu: hasiera doan ikasturterako helburuak. Aholkularitzan eta prestakuntzan hautemandako beharrak, aurreko urteetatik datozen ekintzak, aurten ezarriko diren ekintzak. Aurten erabiliko diren materialak zerrendatzea, bizikidetzaren arduratuko denaren datuak (ordutegia, prestakuntza eta lan plana), 2. eta 3. ereduaren, hurrenez hurren, deskribatzen den bezala. Dokumentu hau memorian zehaztuko den urteko ebaluaziorako erreferente izanen da. Hori dela-eta, behar diren ebaluazio-adierazleak ere zehaztu beharko dira (8. ereduaren iradokizunak begiratu)

g) Bizikidetzaren erregelamendua eta hori eguneratzeko tresnak. Bizikidetzaren erregelamendu honetan bildu beharko da ikasleen eskubide eta eginbeharrei eta ikastetxe horietako bizikidetzari buruzko 47/2010 Foru Dekretuko 10. artikuluan eta 204/2010 Foru Aginduaren 16. artikuluan xedatutakoa.

h) Ebaluazioa: Tresnak eta adierazleak. Atal honetan deskribatuko da bizikidetzaren egoera ebaluatze prozedura orokorra eta, urtero, bizikidetzaren planaren urteko zehaztapenean ezarritako jarduerak ebaluatze tresnak eta adierazleak zehaztuko dira. Lortutako emaitzak eta ondorioak eta horien ondoriozko hobekuntza proposamenak gero sartuko dira txostenean.

2. eredia

BIZIKIDETZA PLANAREN URTEKO ZEHAZTAPENA PRESTATZEKO EREDUA

204/2010 Fako 12. artikuluan araututako urteko zehaztapena ikastetxearen urteko programazio orokorrean sartuko da eta gutxienez dokumentu honetan sartutako atalak izanen ditu.

BIZIKIDETZA PLANAREN URTEKO ZEHAZTAPENA			
1	Ikastetxea:		Ikasturtea:
	Bizikidetza plana zein ikasturtetan hasi den:		
2	Ikasturte honetarako urteko zehaztapedo helburuak	Arduraduna	Denborak
3	Aholkularitzan eta prestakuntzan hautemandako beharrak:		
4	Aurreko ikasturteetatik datozen ekintzak	Arduraduna	Denborak
5	Hasi den ikasturte honetan ezarri diren ekintza berriak	Arduraduna	Denborak
6	Aurten erabiliko diren materialen zerrenda (bizikidetzaren arduradunak bildu eta ordenatuak. Komeni da hemen adieraztea zer tokitan dauden gorderik)		
	Materiala	Kokapena	
7	Bizikidetza batzordeko kideak (iazkoa ez bada):		
	<ul style="list-style-type: none"> • Arduraduna: Izen-deiturak: Karguan zenbat orduz aritzen den: Prestakuntza: Pertsona horren lan plana: • Bestelako organo edo egiturak: 		
<i>Sinadura eta data:</i>			

3. eredia

BIZIKIDETZA PLANAREN URTEKO ZEHAZTAPENAREN MEMORIA PRESTATZEKO EREDUA

Bizikidetza planaren urteko zehaztapenaren memoria 204/2010 Foru Aginduko 12. artikuluko 4. puntuan arauturik dago. Ikastetxearen urteko memoriaren parte da eta komeni da hori egiten denean plan horren urteko zehaztapena abiapuntu modura hartzea. Bizikidetza planaren urteko zehaztapenean ikastetxeak programaturiko atazak ebaluatzeko dokumentua da eta erabilgarria da hurrengo ikasturteko bizikidetza planaren urteko zehaztapenaren abiapuntua delako. Txostenaren dokumentu honen atalak sartuko dira, gutxienez.

URTEKO ZEHAZTAPENAREN TXOSTENA			
1	Ikastetxea:	Ikasturtea:	
	Bizikidetza plana zein ikasturtetan hasi den:		
2	Bukatzerako doan ikasturte honetarako zer helburu ageri den urteko zehaztapenean	Lorpen maila	Balorazioa
3	Aholkularitzan eta prestakuntzan hautemandako beharrak:		
4	Aurtengo ikasturtean ezarritako ekintza berriak	Ebaluazio adierazlea	Lorpen maila
5	Hurrengo ikasturtean ekintza berriak egiteko proposamenak (hurrengo urteko zehaztapenean sartzekoak)	Ebaluazio adierazlea	Arduraduna edo esparru arduraduna
6	Bizikidetza plan orokorrean sartuko diren ekintzak eta proposamenak:		
7	Erabili diren edo hurrengo urtean erabiltzeko proposatu diren materialen zerrenda (bizikidetzaren arduradunak bildu eta ordenatuak. Komeni da hemen adieraztea zer tokitan dauden gorderik)		
	Materiala	Kokapena	
8	Bizikidetzaren arduradunak egindako balorazio kualitatibo laburra		
9	• Arduradunaren izen-deiturak:		
	Karguan zenbat orduz aritzen den:		
	Prestakuntza:		
	Pertsona horren lan plana:		
Sinadura eta data:			

4. eredia

ESKOLA JAZARPENA DAGOENEAN ERABILI BEHARREKO PROTOKOLOAREN EREDUA

Eskola jazarpeneko kasu bat gertatzen denean, ikastetxean egin beharrekoa 204/2010 Foru Aginduaren 15. artikuluan arautzen da.

Ikastetxe bakoitzeko bizikidetza planean kasu horietan erabili beharreko protokolo zehatza sartuko da, baita hura ezartzeko ardura nork hartuko duen ere. Protokolo eredu hau prestatu da ikastetxe bakoitzak zuzenean beregana edo egoki dezan, hezkuntza komunitatearen ezaugarrien eta beharren arabera.

Ikastetxeak ondoko printzipio hauek bermatu beharko ditu nonahi eta beti:

- ▶ **Babesa.** Lehen helburua eraso geldiarazi eta berriro ez sortzea da.
- ▶ **Esku-hartze eraginkor, azkar eta ez arinegi emandakoa:** Hautemandako indarkeriazko gertaeren aurrean beti esku hartu behar da, eraginkortasunez eta azkar, eta inoiz ere ez presaka. Hezkuntzak emaniko erantzunean bi hezkuntza-neurri motak sartuko dira: zuzentzaileak eta, hala behar denean, diziplinakoak.
- ▶ **Zuhurtasuna eta isilpekotasuna;** horrek esan nahi du inplikaturiko profesionalak soilik ezagutuko dituztela gertaerak, gorabeherak eta jarduerak.
- ▶ **Inplikaturako ikasle guztiekin esku hartzea:** Hezkuntzako esku-hartzea inplikaturako ikasle guztiei hedatuko zaie: biktima, jazarpenaren protagonistak eta lekukoak.
- ▶ **Zuhurtasuna eta sentikortasuna** esku-hartzeetan. Kontuan hartu behar da arazo honek sufrimendu handia eragiten duela familietan eta biktimengan.

ZER GERTATZEN DA? / ZER EGIN?	Noiz?	Arduraduna
Jakin dugu.	1. eguna	Normahi
Gertatutakoaren berri zuzendaritzari ematen diogu . (1. ERANSKINA)	1. eguna	Normahi
Kasua ikertu eta lantzeko agindua. Izendatu arduraduna. Babes neurriak.	1. eguna	Zuzendaritza
Gaia serioa eta egiaztatua bada. Kautelazko neurriak. Gaia ez bada larria eta, biktimarekin eta erasotzailearekin hitz egin ondoren, "argi" konpontzeko aukera badago, hobe da hala egitea gatazka larriagotu ez dadin.	1. eguna	Zuzendaritza edo arduraduna
Bermatu eta antolatu biktimaren babesa.	1. eguna	Irakasleak eta beste pertsonak
Hitz egin balizko biktimarekin. Beharbada eskola ez den toki batean eta eskolako ordutegitik kanpo? Beharbada telefonoz? Bermatu beti zuhertasuna. <ul style="list-style-type: none"> • Aditzera eman lagundu nahi dugula. Esan gure laguntza izanen duela . • Konta dezala zer gertatzen zaion. • Esan gaia landu nahi dugula eta hori egiteko berak ados egon behar duela. • Ikasgelan lantzea erabakiz gero, galdetu zer nahiko lukeen: ikasgelan egon edo ez? • Adierazi harekin gaudela. 	1./2. eguna	Arduraduna
Baloratu biktimaren zein erasotzaileen familiarekin hitz egiteko uea denetz. Komeni da orain egitea edo itxaron behar da? (4. ERANSKINA)	2. eguna	Arduradunak zuzendaritzakoekin...
Esku artean dugun informazioa aztertzea. Argitu ahalik eta lasterren kasuaren larritasuna eta zer den: <ul style="list-style-type: none"> • jazarpena. • uneko eraso. • gatazka. Honako hau egiteko, arduradunak denbora hartuko du eta haren klaseak zaintzako irakasleek emanen dituzte. Beharrezkoa da taldeko kide guztiekin edo batzuekin elkarrizketatzea? (prestatu 2. ERANSKINEKO txostena)	2. eguna	Arduraduna
Parte eman Ikuskapen Zerbitzuan.	2. edo 3. eguna	Zuzendaritza
Aztertu datuak eta erabaki gaia nola bideratu. Ezarri esku-hartze plana. (Zehaztu neurriak 3. ERANSKINA erabiliz)	3. eguna	Arduraduna eta orientatzailea
Taldearekin egin beharreko tutoretza lana: ezinbestekoa da kaltea berdintzea, bai erasotzaileena, bai taldearena. Biktimarekin aldez aurretik erabaki da, ikasgelan egonen den edo ez. (Erabaki, tutoreaz gainera, beste norbaitek parte hartu behar duen).	3. edo 4. eguna eta hurrengoak	Tutorea
Lana biktimarekin. Saioa edo saioak. Biktimak erabaki badu tutoretza klasean ez egotea, une horretaz aprobetxatu.	Lehen unetik aurrera	Tutorea. Orientatzailea? Beste espezialista batzuk?
Lana jazartzailerekin. Banaka eta/edo taldean.	4. egunetik aurrera	Tutorea. Orientatzailea? Beste espezialista batzuk?
Informazioa familiei. Idatzia eta/edo ahozkoa (4. ERANSKINA)	5. eguna	Arduraduna eta zuzendaritza
Hutsegitearen kalifikazioa eta, hala behar denean, hezkuntza arloko neurriak.	6. eguna	Zuzendaritza
Informatu Ikuskapen Zerbitzukoak.	6. eguna	Zuzendaritza
Errebisioak.	8., 10., 15. eguna...	Arduraduna

1. ERANSKINA

IKASTETXEKO ZUZENDARITZARI JAZARPENEO EDO INDARKERIAZKO KASUAK GERTATZEN DIRENEAN IDATZIZ ADIERAZI BEHARREKOA ESKU HARTZEKO ESKAERA

Bizikidetza plana betez, ikastetxeek dokumentu idatzi hau edo beste dokumentu idatzi batzuk erabil ditzakete. Dokumentu horietan zehaztuko da aditzera ematen diren gertaerak, hautemandako gertaeren berri ikastetxeko zuzendaritzari emateko.

IKASTETXEKO/BHIko ZUZENDARI JAUNA/ANDREA

204/2010, abenduaren 16ko Foru Aginduak arautzen du nola jardun behar den ikaskideen arteko jazarpeneko eta larderiazko kasuetan esku hartzeko eskaera baten aurrean. Esku hartzeko eskatzen dizut, aipatutako foru aginduko 15.2 artikuluari jarraikiz.

Eskaeraren arrazoa:

Gertaeren deskribapen laburra:

Eskatzen dizut ikastetxeak egindakoaren eta arazoaren aurrerabidearen berri ematea.

- BAI
- EZ

Sinatua:

Sinadura eta data:

2. ERANSKINA

EGINTZAK EGIAZTATZEKO TXOSTENAREN EREDUA

Lehen txostena: Zuzendaritzak edo hark bere ordeztaritzeko izendatutakoak egina eta zuzendaritzak sinatua. Kopia Hezkuntzako Ikuskapenera bidaliko da.

204/2010 Foru Aginduan araututakoari jarraikiz, kasuko egoeraren eta egiaztatutako egintzen gaineko txosten hau prestatu da.

1. Identifikazioa:

Ikastetxea:

Helbidea eta telefonoa:

2. Txosten hau idatzi du(t)en pertsona(k):**3. Inplikaturako ikasleak**

Ikaslea	Kurtsoa eta atala	Zer den: Erasotzailea/biktima/lekukoa

4. Noiz adierazi zitzaion zuzendaritzari:.....**5.(k) eskatu zuen esku hartzea**

Nor zen:

Aita edo ama. Ikaslea. Tutorea. Irakaslea. Orientatzailea. Beste batzuk

6. Behaketa eta ikerketa arloan hartutako neurriak:

7. Egiaztatutako eraso-motak:

Eraso motak	bai	ez	Batzuetan	Askotan	Ikasle erasotzaileak
Ahazkoa. irainak, ezizenak, biktimari buruz gaizki esaka ibiltzea...					
Gizartetik baztertzea. Parte hartzen ez uztea. Alde batera uztea. Errefusatzea. Zokoratzea.					
Fisikoa. Kolpeak, bultzadak...					
Fisikoa (zeharkakoa). Bere jabetzapeko gauzak kaltetzea, bere gauzak desagerraraztea...					
Beldurraraztea. Xantaia, mehatxuak,					
Sexu- jazarpen edo -abusua					
Ziber-jazarpena. Jazartzea telefonoz edo informatika bidez.					

8. Non gertatu den::

- | | |
|--|---|
| <input type="checkbox"/> Ikasgelan. Irakaslea bertan dagoela | <input type="checkbox"/> Jantokian |
| <input type="checkbox"/> Ikasgelan. Ez zegoen irakaslerik | <input type="checkbox"/> Autobusean |
| <input type="checkbox"/> Korridoretan | <input type="checkbox"/> Ikastetxetik kanpo |
| <input type="checkbox"/> Klase aldaketetan | <input type="checkbox"/> Telefonoz |
| <input type="checkbox"/> Komunetan | <input type="checkbox"/> Internetez |
| <input type="checkbox"/> Aldageletan | <input type="checkbox"/> Beste batzuk..... |
| <input type="checkbox"/> Sarrera-irteeretan | |

9. Egiaztatutako gertaeren deskribapen kualitatiboa (gertaera, datak, tokiak, erasotzaileak, lekukoak...)

_____ (e)n, ____ (e)ko _____ aren _____ (e)an

Stua.: Txostenaren prestatzailea

Stua.: Zuzendaritza

3. ERANSKINA

ZUZENDARITZAKOEI EMAN BEHARREKO NEURRIEN PROPOSAMENA, JAZARPEN KASU BATEN AURREAN

Jazarpena gertatzen denerako ezarrita dagoen protokoloari jarraikiz, arduradunak kasu honetarako ekintza plana zehazteko bildu dira. Kasuaren txostena honi erantsita dator ([2. ERANSKINA](#)).

- 1.** Bileraren deia egin duena:
- 2.** Biktima babesteko berehalako neurriak.
- 3.** Biktima indartzeko neurriak.
 - 3.1. Beste batzuk gomendatu dira?
 - 3.2. Aplikazioaren arduraduna edo arduradunak.
- 4.** Erasotzaileekin hartu beharreko neurriak.
 - 4.1. Hezkuntzakoak:
 - Diziplinakoak.
 - Kaltea berdindu eta lehengoratzeko neurriak.
 - 4.2. Aplikatzeaz arduratuko direnak.
 - 4.3. Ohiko prozedura ireki beharko litzateke?
- 5.** Taldeari ezarri beharreko neurriak:
 - 5.1. Hezkuntzakoak.
 - Diziplinakoak.
 - Kaltea berdintzekoak.
 - 5.2. Aplikatzeaz arduratuko dena.
- 6.** Neurri eta berrikuspen guztien jarraipena. Noiz, nola, nork?

Sinadura eta data:

4. ERANSKINA

FAMILIARI KOMUNIKATZEKO ETA HAREKIN HITZORDUA EZARTZEKO NEURRIEN PROPOSAMENA

Honako honen bidez aditzera ematen dizuegu zuen semea edo alaba den _____
_____ honako gertaera hauetan nahasita dagoela:

Eskatzen dizuegu ikastetxera etor zaitezten _____(r)ekin elkarrizketa
izateko. Elkarrizketa _____ egunean izanen da, _____(e)(t)an. Uste dugu
_____ iraunen duela.

Egun eta ordu horretan etortzerik ez baduzue, eskatzen dizuegu guri horren berri ematea
_____ zenbakira deituz. Beste une bat aurkitzen ahaleginduko gara.

_____ (e)n, ___ (e)ko _____ aren _____ (e)an

Stua.: Zuzendaritza



Itzuli sinatua:

Komunikazioa egun honetan hartu dut:

Ikastetxera joanen naiz: BAI EZ

5. ERANSKINA

**HEZKUNTZA DEPARTAMENTUKO BIZIKIDETZA AHOLKULARITZARI ESKU
HARTZEKO ESKAERA**

Eskatzailearen izen-deiturak:

.....

NANa: Telefonoa:

Zuzendaritza:

.....

Zer den: (*azpimarratu*) Ikaslea

Aita

Ama

Bestelakoa (*zehaztu*):

Ikaslearen izen-deiturak:

.....

Adina: Kurtsoa:

Ikastetxea:

Tutorearen izen-deiturak:

Eskaeraren zergatia (*Beharrezkoa bada orrialdearen atzean idatzi*):

_____ (e)n, ___ (e)ko _____ aren _____ (e)an

Sinadura:

5. eredia

HEZKUNTZA ESPARRUAN GENERO-INDARKERIAKO KASU BAT GERTATZEN DENEAN JARDUTEKO GIDA

Arutua dago.207/2010. Foru Aginduko 16. artikuluan eta Nafarroako Gobernuko "Genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeei laguntza emateko koordinazio eraginkorrerako erakunde arteko akordioan" arautua.

Jarduna arautuko duten printzipioak honako hauek dira: balizko biktimaren babes, esku-hartze eraginkor, azkar eta premiazkoa, nahiz eta ez arinegi emandakoa, eta isilpekotasunaren zuhurtasuna eta errespetua.

a) Jakiten bada edo oinarritutako susmoa bada ikasle neska batek Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe bateko ikasle mutil batengandik genero-indarkeria pairatu duela, ikastetxeko zuzendaritza jarduera-prozesuaren arduraduna izanen da eta prozesu hori koordinatuko du. Ikastetxe horretako irakasle batek har dezake bere gain koordinazio hori. Ikastetxeak zein inplikaturiko pertsonak Bizikidetzaren Aholkularitzaren eta/edo Hezkuntzako Ikusapenaren aholkuak eta esku-hartzea izan ditzakete ([5. ERANSKINA](#), [4. EREDUKOA](#)). Telefonoa, haxe: 900 841 551.

- **Prozesuaren jatorria.** Hezkuntza komunitateko kide heldu batek baldin badaki norbait jazarpena, larderia edo genero-indarkeria jasaten ari dela, biktima babestuko du eta egoera horren berri idatziz emanen dio ikastetxeko zuzendaritzari.
- **Informazioa biltzea.** Ikastetxeko zuzendaritzak tratatu txarren gertaerak eta inguruabarrak argitzeko behar bezainbeste datu sistematikoki behatu eta bilduko ditu, baita tratatu txar horren larritasuna ere. Eskura dagoen informazioa osatu eta ahalik eta zuhurtasun eta eraginkortasun handienarekin erkatuko da.
- **Informazioa aztertzea eta premiazko neurriak hartzea.** Zuzendaritzak orientatzailea eta kasu bakoitzean beharrezkoa den esku-hartzea aztertu eta baloratzeko ikastetxeko pertsona egoki eta eskudunak deituko ditu (oro har, bizikidetzaren batzordea) eta egokitzat jotako neurriak hartuko dituzte, hots, erasotutako emakumearen edo neskaren segurtasuna berehala bermatuko dutenak (baita erasotzailaren kontrako diziiplina neurriak ere). Neurri horiek, hala behar denean, balizko polizia-jarduerekin bateragarriak izanen dira.
- **Elkarrizketak.** Bana-banako elkarrizketak prestatu eta hitzartuko dira alde inplikatuekin eta haien familiarekin, gertaeren gaineko informazioa ezagutu eta biltzeko, gertaera horiek familiek ezagutzen dituzten edo ez zehazteko, horri dagokionean zer neurri hartu den ezagutzeko eta ikastetxeak egindako jardueren berri gertaera horiek ukitzen dituztenei emateko (adingabeak direnean, zitazioetan ikaslea eta bere familia elkar daitezke, okerragorako ez dela izanen uste bada bederen). Era berean, izan ditzaketen iritziak eta egin ditzaketen ekarpenak bilduko dira eta adieraziko zaie gertaerak delitu izan daitezkeen edo ez eta, ondorioz, salatu daitezkeen edo ez.

- **Esku-hartze plana.** Informazio guztia bildu eta aztertu ondoren, erabakiko da genero-indarkeriazko kasu bat den edo ez baieztatzen den eta horrekin esku-hartze plana idatziko da. Planean neurri hauek bilduko dira: ikastetxeak inplikaturiko ikasleekin hartu beharreko neurriak, kaltetutako familiei eman beharreko informazioa, gainerako ikasleekin eta irakasle taldearekin egin beharrekoa eta, hala behar denean, bestelako instantzia sozial, sanitario, judizial eta polizialei adierazi beharrekoa.
 - **Txostena.** Kasuaren koordinatzaileak ikastetxeko zuzendaritzara bidaliko du ikerketaren txosten idatzia eta hartan iradokiko du zein diren proposatutako neurri zuzentzaileak. *Zuzendaritzak hezkuntza arloko neurriak hartuko ditu eta horren berri emanen die Ikuskapen Zerbitzukoiei.*
 - **Informazioa inplikaturiko familiei.** Behin esku-hartze plana idatzirik, inplikaturiko familiei aditzera emanen zaie beren semearekin edo alabarekin bana-banaka zer neurri hartu den eta, horrekin batera, familiakoak kaltetu ditzakeen antolaketa eta prebentzio arloetako gainerako neurrien berri emanen zaie.
 - **Jarraipena eta Ebaluazioa.** Ikastetxeko zuzendaritzaren ardura da esku-hartze planean aurrez ikusitako neurriak gauzatzea. Aldian-aldian behar den ikuskatzaileari aditzera emanen dio neurri horiek zenbateraino bete diren eta zein den inplikaturiko ikasleen egoera sozioedukatihoa.
- b)** Jakiten bada edo oinarritutako susmoa bada neska ikasle batek Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe bateko langile batengandik genero-indarkeria pairatu duela, horren berri emanen zaie ikastetxeko zuzendaritzakoei eta azken honek berehala esanen die Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzukoiei. Hori guztia, diziplina neurriak eta agintari judizial eskudunari nahitaez komunikatzeko beharra eragotzi gabe.
- c)** Hezkuntza elkarteko kideren batek baldin badaki edo oinarritutako susmoa badu neska ikasle batek familiakide batengandik edo Foru Komunitateko ikastetxe bateko langilea ez den batengandik genero-indarkeria pairatu duela, berehala emanen die horren berri ikastetxeko zuzendaritzakoei eta azken horiek, egoera azterturik, gizarte zerbitzuei, fiskaltzakoei eta hezkuntzako ikuskapenekoei.
- d)** Hezkuntza elkarteko kideren batek baldin badaki edo oinarritutako susmoa baldin badu langile bat edo ikasle baten ama genero-indarkeria pairatzen ari dela, berehala emanen die horren berri gizarte zerbitzukoiei, fiskaltzakoei edo agintari judizial eskudunari, delitu-zantzuak daukela uste badu.

Goragoko a), b), c) eta d) ataletan ezarritakoaren arabera, premiak hala eskatzen badu, 112ra deituko da. Era berean, kasu guztietan, tratu txarrak daukela edo genero-indarkeria dagoela zehazten bada, biktimei edo, hala behar denean, haien familiakoei esanen zaie biktima modura hezkuntza esparruan zer zerbitzu eta prestazio izateko eskubidea duten edo informazio egokia emanen dien norbaitengana bidaliko dira.

Prozedura dokumentatzeko, eskola jazarpeneko kasuetan proposatutako dokumentuen antzekoak erabiliko dira.

6. eredia

BITARTEKARITZA PROGRAMA EZARTZEA


1. Ikastetxean bitartekaritza programa bat ezarri aurretik, programa horrek nahaitaez hezkuntza comunitateak zakonki ezagutua eta adostasun handiz onartua behar du.
2. Bitartekaritza programak, ezarri nahi diren ikastetxeetan, ondoko eduki eta faseak izanen ditu:
 - a) Koordinazio- eta/edo bitartekaritza-taldea eratzea. Bizikidetza batzordean koordinazio taldea eratu da eta, nahi izanez gero, berariazko prestakuntza duten hezkuntza elkarteko kideak sartuko dira. Bizikidetzaren arduradunak bitartekaritza programaren ardura ere izanen du.
 - b) Baliabide eta beharkizunen definizioa: Taldeko jardueren deskribapena, beharrezko prestakuntzaren planifikazioa eta baliabide materialen, giza baliabideen eta laneko denbora eta espazioena zehaztapena.
 - c) Programaren oinarritzko diseinua:
 - ▶ Landu beharreko ereduaren eta gatazka-moten definizioa.
 - ▶ Hartzaile taldeak eta bitartekaritza moduak.
 - ▶ Inplementazio-aldiak idaztea.
 - ▶ Tutoretzaren bilerak eta jarduerak.
 - ▶ Dokumentazioa sortzea. informazio-orriak, erregistroak, kartelak eta laguntzarako bestelako materialak.
 - ▶ Kasuak deribatzekeo tresna, ordutegi espazioak eta bitartekaritza gela.
 - ▶ Zuzendaritzakoei eta irakasleei komunikazioa helarazteko sistemak.
 - ▶ Bitartekariei laguntzeko ekintzak, errekonozimenduak eta bestelako jarduerak.
 - d) Programa bizikidetza planean txertatzea. Programa koordinazio taldean adostu eta klausuroko, guraso elkarteko eta eskola kontseiluko kideei aurkeztu ondoren, ikastetxeko bizikidetza planean sartuko da.
 - e) Sentsibilizazioa eta hedapena.
 - f) Prestakuntza jarduerak. Bitartekariak hautatu eta prestatzea.
 - g) Programa abiatzea. Bitartekotza aurrekoak, bitartekotzak eta haien jarraipena.
 - h) Programaren ebaluazioa: Atazak eta bilerak koordinatzea, prestakuntza eguneratzea, jarduerak berrikusi eta baloratzea, hobekuntza proposamenak eta txostenak.

7. eredia

HEZKUNTZA BITARTEKARITZAKO PROZESUA

Bitartekaritza gatazkak ebazteko metodo modura erabil daiteke eta, horretaz gainera, zenbaitetan hezkuntzako neurriak ezartzeko aringarri.

Bitartekaritza errazteko asmoz, hona hemen eredu bat 204/2010 Foru Aginduko IV. kapituluan araututakoa ezartzeko. Foru Agindu horren bidez Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan eta diruz lagundutako ikastetxe pribatuetan bizikidetza arautzen da. Bitartekaritza arloko prestakuntza dutenek erraz ezartzeko moduko materiala da eta trebatutako irakasleek eta ikasleek erabiltzen ahalko dute. Era berean, erabilgarria da bitartekaritza ez-formaletan ezartzeko.



1. FITXA*. Gatazka bat gertatu da. Bitartekaritza eskatzea

Propaganda egin ondoren, ikasleei esanen zaie fitxa hau zehatz-mehatz non aurkituko den. Fitxak biltzeko postontzi bat jar daiteke.

BITARTEKARITZA ESKATZEA

Izen-deiturak. Taldea.

.....
.....
.....

Zer gertatu da?

.....
.....
.....
.....

Noren artean? (erantzun askea)

.....
.....
.....

Zer eskatzen duzu/dute?

.....
.....
.....

Bitartekari jakin bat proposatzen duzu/dute? Markatu gurutze bat.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Sinadura/k eta data.

() 1., 2. eta 3. fitxak ezarri behar dituenak aldeztu behar dituenak aldez aurretik trebatua izan beharko du gatazken bitartekotzan edo ebazteko teknikan.*

2. FITXA*. Aurrebitartekaritzako elkarrizketetarako gidoia

Gidoi hau erabiliko da, lehenik, alde batekin, eta gero, bestearekin.

1. Aurkezpena. Ez ahaztu agurtzea. Hartu modu beroan.

- Kaixo! gara (naiz). Bitartekariak gara eta zure esanak aditu nahi ditugu ahal bada arazo hau ebazten laguntzen ahalegintzeko.
- Zure izena da (begiratu begietara).

2. Orain kontatuko dizugu zer den bitartekaritza:

- * Jakizu hau ez dela galdeketa bat, ezta kontsulta psikologiko bat ere.
- * Bitartekariok ez dugu soluziorik, baina soluzio hori bilatzen lagundu nahi dizugu.
- * Bilera hauetan esandako guztia isilpekoa da. Esan nahi diguzuna entzunen dugu, baina ez zaitugu deus ebaztera behartuko. Ezin dugu deus ere zure izenean ebatzi benetako soluzioa zure eskuetan baitago.
- * Fidatu gurekin. Guk zu laguntzeko zure konfiantza eta borondate ona behar ditugu.
- * Izan dezakezuen arazoa konpontzen lagunduko dizuegu, baina ez dugu zuengatik konponduko. Zuen beharrak kontuan hartuko ditugu.
- * Ebazteko ezinbestekoa da lana elkarrekin egitea.
- * Esan dizugun guztia beste aldeari ere esanen diogu (esan haren izena).
- * Parte hartzeko prest zaude?
- * Ados zaude eta ni neu zure bitartekariak izatearekin?

3. Konta iezaguzu zer gertatzen den / zer gertatu zen...

4. Nola sentitu zara?

5. Beste inor lotua al dago problema honekin?

6. Ados bazara, hitzordua eginen dugu(e)n, egunean. Beste aldearekin hitz egiten dugunean (esan haren izena), tokia eta data baieztatuko dizkizugu.

7. Agur beroa.

Bitartekariak elkarrizketa hauetako alderdirik esanguratsuenak idatzi beharko ditu.

() 1., 2. eta 3. fitxak ezarri behar dituenak aldez aurretik trebatua izan beharko du gatazken bitartekotzan edo ebazteko tekniketean.*

3. FITXA*. Bitartekaritzarako gidoia

1. AGURRA

(Izan zaitetz abegikorra. Begira ezaiozu begietara. Izan ezazu jarrera lasaia eta modu aktiboan entzun).

- Kaixo! Elkar ezagutzen badugu ere, komeni da gure izenak gogora ekartzea. Hemen gaude kezkatzen zaituen hori konpondu nahi duzuelako eta guk lagundu nahi zaituztegu.
- Zu zara eta zu zara.

2. JOKOAREN ARAUAK

(Hitz egiterakoan, begira iezaiezu bi aldeei, txandaka).

Honako hau egin behar dugu eta honako hauek dira bete behar ditugun arauak:

- * Kontatuko diguzue, lehenik... *(esan izena eta aurpegira begiratu)* eta jarraian... *(esan izena eta aurpegira begiratu)* zein den arazoaz duzuen ikuspegia. Denbora bera izanen duzue hitz egiteko. Ez diozue elkarri etengo, ezta elkar irainduko ere.
- * Guk galderaren bat eginen dizuegu egoera ahalik eta gehien argitzeko. Era berean, zuek zeuek arazoa nola ebatziko zenuketen galdetuko dizuegu.
- * Bi aldeendako ona izanen den soluzio bat prestatzen laguntzen ahaleginduko gara.
- * Biak ados zaudeten soluzioren bat lortzen badugu, biok sinatuko duzuen agiri bat idatziko dugu.
- * Guk ez dugu parte hartuko eta ez dizuegu esanen zer egin behar duzuen.
- * Beharrezkoa dela badakusagu, berriro elkar gintezke, bakarka.
- * Zuen borondatez etorri zarete?
- * Hitza ematen duzue hemen esaten den guztia isilpekoa izanen dela eta inork ez duela ezer ere kontatuko gela honetatik kanpo? Bitartekariok oharrak hartuko ditugu eta ohar horiek ere isilpekoak izanen dira. Ados zaudete?
- * Ados zaudete ez diozuela elkarri etengo?
- * Ados zaudete elkar errespetatuko duzuela eta ez diozuela elkarri irainik eginen eta ez duzuela ezizenik edo doinu erasokorrik erabiliko?
- * Ados zaudete ahaleginduko zaretela zintzoki soluzio bat bilatzen?
- * *(Alde bati zehazki zuzenduz)* Zuk hasi nahi duzu?

Bi bitartekari baldin badaude, batek denborak eta txandak kontrolatu behar ditu.

3. KONTAIDAZU

Galdetzerakoan begiratu aurpegira eta entzunen duzula bermatu.

- a) Kontaiguzu zer gertatu den *(Lehen aldeari)*
- b) Kontaiguzu zer gertatu den *(Bigarren aldeari)*

(Garrantzitsua da sentimenduak adieraztea).

a) Nola sentitu zinen? *(Lehen aldeari)*
Zure ustez, nola sentitu zen...? *(Lehen aldeari)*

b) Nola sentitu zinen? *(Bigarren aldeari)*
Zure ustez, nola sentitu zen...? *(Bigarren aldeari)*

Zerbait gehiago gehitu nahi duzue? *(Begiratu txandaka bi aldeei)*

4. ARAZOA ARGITU BEHAR DUGU

Begiratu txandaka bi aldeei.

Arazoa argitzeko zenbait galdera nagusi:

- Kontatu diguzun guztitik, zuretako garrantzitsuena da...
- Ongi ulertu badut, ...
- ... sentitu zara?
- Ongi ulertu badut, zuen arteko aldea honetan datza: zure interesak *(begiratu aurpegira)* ... dira eta zureak ... *(begiratu aurpegira)* dira

Erabili soilik ezinbesteko galderak.

Egin laburpena kontatu dizutenarekin.

5. PROPONER SOLUCIONES

a) *(Alde bati)* Elkarretaratze hauetatik, zer emaitza atera nahi zenuke? Zure ustez, nola konpon genezake hau? Zer eskatzen duzu?

b) *(Beste aldeari)* Eta zuk?

a) *(Alde bati)* Uste duzu eskatzen duena ekar dezakezula?

b) *(Beste aldeari)* Eta zuk? Uste duzu eskatzen dizuna ekar dezakezula?

Bi aldeei:

Zuk ... proposatu duzu eta zuk ... proposatu duzu. Zentzukoa iruditzen zaizue? Arazoa honela konpontzen dela uste duzue? Uste duzue norbaiti kontsulta egin behar diozuela erabakia hartzeko?...

Soluziorik aurkitzen ez badute, bitartekariak soluzioak iradoki ditzake, baina inoiz ez inposatu

6. ERABAKIA HARTU

Arazoa konpondutzat eman dezakegu?

Erabakitakoa idatzi eta sinatu dezakegu. Ados zaudete?

7. ZIURTATU

Ongi iruditzen baizaizue, ... egunetan elkar gaitzezke gauzak nola dauden ikusteko.

8. AGURTU

Atsegina izan eta gudan izan duten konfiantza eta gatazka ebazteko inplikazio pertsonala eskertu.

BITARTEKOTZA EGITEKO TREBETASUNAK

- ▶ Gure gorputzaren jarrerarekin eta adierazpenarekin interesa agertu.
- ▶ Erreparatu kanpoko zein barneko alderdiei eta kontakizuna, emozioak eta sentimenduak behatu.
- ▶ Ez eten elkarri eta ez galdu xehetasunetan.
- ▶ Inpartziala izan eta ez izan aurreiritzirik.
- ▶ Ez distraitu eta ez onartu distrakziorik.
- ▶ Lantzeko zaila denari ere ekin.
- ▶ Emozioen adierazpenak eskura jarri, onartu eta islatu.
- ▶ Argitzea, parafraseatzea eta laburbiltzea bitartekotzan oso erabilgarriak diren teknikak dira.
- ▶ Zentratu orainaldian.
- ▶ Saihestu orokortzeak, azpimarratu aldeko mezuak eta baikorrak izan aldeek arazoa ebazteko gaitasunaren gainean.
- ▶ Pazientzia izan, jakin itxaroten eta emaitza arrakastatsuekin ez larritu.
- ▶ Entzun aktiboki eta pentsatu postura bat baino izan daitekeela.
- ▶ Enpatia, diskrezioa eta umiltasuna izan.
- ▶ Pertsonak errespetatu eta onartu, eta konfiantza eragin.

() 1., 2. eta 3. fitxak ezarri behar dituenak aldeztu behar dituenak aldez aurretik trebatua izan beharko du gatazken bitartekotzan edo ebazteko teknikekin.*

4. FITXA. Akordioa, akta erdua

	A ALDEA	B ALDEA
Izen-deiturak:		
Zer egin zuten?		
Zer eskatzen dute arazoa ebatzitzat emateko?		
Beste aldeak eskatutakoa onartzen du?		
Ados?		
Norbaiti esan behar zaio?		
<p>Sinadurak eta data:</p> <p>Hitza ematen dut isilpean gordeko dudala. Hitza ematen dut erabakitakoa beteko dudala eta isilpean gordeko dudala. Hitza ematen dut erabakitakoa beteko dudala eta isilpean gordeko dudala.</p> <p>Lekukoak/bitartekariak: A aldea: B aldea:</p>		

Erabakitakoa berrikusteko data, ordua eta tokia.

8. eredia

IKASTETXEETAN BIZIKIDETZA EBALUATZEKO ADIERAZLEEN ZERRENDA

Hona hemen ikastetxean bizikidetzaren egoera ebaluatzeko adierazleen zerrenda. Zerrenda hau ESTUDIO SOBRE LA CONVIVENCIA ESCOLAR EN LA EDUCACIÓN SECUNDARIA OBLIGATORIA DE NAVARRA (ESKOLAKO BIZIKIDETZA NAFARROAKO DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAN) azterlanetik atera da. Azterlan hori María José Díaz Agudoren zuzendaritzapean egin zen, Hezkuntza Ministerioaren eta autonomia erkidegoen arteko Eskolako Bizikidetzarako Estatuko Begiratokiaren esparruan.

Ikastetxeek hemen lortuko dituzte bizikidetzaren egoera ebaluatzeko euren adierazleak prestatzeko ideiak. Material hori eta Nafarroako Foru Komunitaterako emaitzak Hezkuntza Departamentuaren webguneko bizikidetzak/irakasleak/materialak orrialdean dago.

1. BIZIKIDETZAREN KALITATEA, IKASLEEK EBALUATURIK

1. Oro har, pozik egotea ikastetxearekin eta eskolako harremanekin (8)

1. Ikastetxe honetan
2. Irakasleekin
3. Ikaskideekin
4. Zuzendariarekin
5. Orientatzailearekin edo antzeko norbaitekin
6. Atezainekin
7. Zure familiaren eta ikastetxearen arteko harremanarekin
8. Ikastetxean ikasten duzunarekin

2. Ikasteko toki modura hartuz, ikastetxearen parte izatearen sentimendua (5)

1. Ikastetxera etortzeak ez dit askotarako balio helduarorako (alderantzizko zentzua)
2. Ikastetxera etortzea denbora galtzea da (alderantzizko zentzua)
3. Ikastetxera etortzeak laguntzen nau nigan konfiantza izaten erabakiak hartu behar ditudanean
4. Ikastetxera etortzeak lan batean erabilgarriak izan daitezkeen gauzak erakusten dizkit
5. Aukera izanen banu, ikastetxez aldatuko nintzateke (alderantzizko zentzua)

3. Integrazio soziala (3)

1. Lagunak erraz egiten ditut
2. Integraturik sentitzen naiz
3. Beste ikasleek gogoko naute

4. Ikasleen arteko lankidetzaz (3)

1. Ikasleek elkarri laguntzen diote lagunak ez badira ere
2. Talde edo koadrila bat baino gehiagokoak diren ikasleak elkarrekin ongi moldatzen dira
3. Ikasten da ikasleen artean elkarlanean arituz

5. Irakasleekiko harremanaren kalitatea eta haren eragina (autoritatea) (7)

Irakasleek

1. Gure ongizatea nahi dute
2. Haiei esan beharrekoa entzuten dute
3. Ikasleak zuzen hartzen dituzte
4. Haien laguntza izan dezakegu gatazka bat zuzen ebazteko
5. Fidatzen gara eta elkar errespetatzen dugu
6. Badituzte nolakotasunak, haiekin bat egiteaz gainera nik neuk izan nahi nituzkeenak
7. Helburuak lortzen laguntzen didate

6. Ikastetxea erkidego modura (6)

1. Denok badugu besteen alde egin dezakegun zerbait garrantzitsua
2. Ikastetxeko materialak eta instalazioak zaintzen ditugu
3. Talde bateko partaide garelako sentitzen dugu
4. Ikasleek elkarrekin lan egiten dutenean gauza asko lortzen dira
5. Ikasleak animatzen ditugu gai guztien gaineko ideia propioak izan ditzaten
6. Irakasleekin ongi moldatzen gara

7. Ikastetxean eta inguruan bizikidetzaz eraikitzen parte hartzea (3)

1. Aldian-aldean elkartzen gara bizikidetzaz eta ikastetxea nola hobetu bilatzeko
2. Lan egiten dugu munduan zer gertatzen ari den ulertzeko
3. Ikasleok lan egiten dugu ikastetxearen inguruan (ikastetxea dagoen hirian edo herrian) gertatzen dena hobetzeko

8. Familien eta ikastetxearen arteko komunikazioa (6)

1. Gure familia ikastetxe honekin pozik dago
2. Gure familiak irakasleei esan diezaietke zerk kezkatzen duen
3. Gure familiaren eta irakasleen arteko komunikazioa ona da
4. Gure familia ikastetxean egiten ditudan lanez arduratzen da
5. Uste dut gure familia errespetatzen dela ikastetxe honetan
6. Ikastetxe honetan, familiek parte hartzeko aukerak dituzte

9. Bilerak familiekin (3)

1. Gure familia tutoreak deitutako bileretara etortzen da
2. Gure familiak atsegin du ikastetxeak antolatzen dituen bileretara joatea
3. Atsegin dut gure familia ikastetxeak antolatzen dituen bileretara joatea

10. Familiak ikastetxearekin eta guraso elkartearekin lankidetzan aritzea (4)

1. Gure familiak eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzen du
2. Gatazka bat gertatzen denean, hura konpontzeko gure familiak eta ikastetxeak elkarrekin egiten dute lan
3. Gure familiak guraso elkartearekin batera egiten du lan
4. Gure familia guraso elkartearekin pozik dago

2. BIZIKIDETZAREN KALITATEA, IRAKASLEEK EBALUATURIK

1. Bizikidetzaren kalitate globala ikastetxean (5)

1. Bizikidetzaren kalitate globala ikastetxean
2. Irakasleen eta ikasleen arteko harremanak
3. Ikasleen arteko harremanak
4. Harremanak familiekin
5. Harremana ikastetxeko inguruarekin (auzoa, udalerria...)

2. Irakasleen eta langileen arteko harremanen kalitate globala (5)

1. Atezainen eta irakasle ez diren langileen rola
2. Irakasleen arteko harremanak
3. Zuzendaritza taldearen inplikazioa
4. Orientazio Departamentuaren edo antzekoaren lana
5. Harremana nire departamentuarekin

3. Norberaren errealizazioa (3)

1. Uste dut positiboki eragiten dudala gainerakoen bizitzan
2. Uste dut erraz egin dezakedala atsegin giroa nire lanean
3. Uste dut gai naizela bizikidetzaren hobetzeko beharrezkoak diren ahaleginak egiteko.

4. Ikastetxeko partaide naiz (4)

1. Hemen lan egiteaz harro nago
2. Ahal izanen banu irakasle modura lan egiteari utziko nioke (alderantzizko zentzua)
3. Uste dut nire lana garrantzitsua dela
4. Uste dut ikastetxe honetako kide garrantzitsua naizela

5. Irakasleekiko harremanaren kalitatea eta haren eragina (autoritateak) (4)

1. Ikasleek irakasleen laguntza izan dezakete gatazka bat zuzen ebazteko
2. Irakasleen eta ikasleen artean badira konfiantza eta elkarrekiko errespetua
3. Irakasleak ikasleendako erreferentzia garrantzitsua dira
4. Irakasleek ikasleei laguntzen diete interesatzen zaizkien helburuak erdiets ditzaten

6. Irakasleen arteko integrazioa eta lankidetzak (4)

1. Beste irakasleen laguntza izan dezaket, beharko banu
2. Beste irakasle batzuekin elkarlanean aritzen naiz gure lana hobetzearren
3. Uste dut gure ikaskideek aintzat hartzen nautela
4. Zuzendaritzaren laguntza izan dezaket haren beharretan banago

7. Ikastetxea erkidego modura (10)

1. Denok badugu besteen alde egin dezakegun zerbait garrantzitsua
2. Ikasleek ikastetxeko materialak eta instalazioak zaintzen dituzte
3. Talde, erkidego bateko partaide garelako sentitzen dugu
4. Ikasleak motibatzen ditugu ikasten jarrai dezaten
5. Aldian-aldian elkartzen gara bizikidetzak eta ikastetxea nola hobetu bilatzeko
6. Lan egiten dugu ikasleek munduan zer gertatzen ari den uler dezaten
7. Ikasleek elkarrekin lan egiten dutenean gauza asko lortzen dira
8. Irakasleek elkarrekin lan egiten dutenean gauza asko lortzen dira
9. Ikasleak animatzen ditugu gai guztien gaineko ideia propioak izan ditzaten
10. Ikastetxe honetako gaien antolaketak eta programazioak bizikidetzak ona lortzeko balio du

8. Harremana eta komunikazioa familiekin (5)

1. Familiak tutoreak deitutako bileretara etortzen dira
2. Ematen du familiak pozik daudela bilerekin eta haietan parte hartzea gustatzen zaiela
3. Familiei esan diezaieket euren semearen edo alabaren heziketaz kezkatzen nauena
4. Gatazka bat gertatutakoan, inplikaturiko familiak ikastetxearekin batera egiten du lan gatazka ebazteko
5. Familiek eskolako lanen jakin-mina dute.

9. Familiek irakasleak baloratu eta errespetatzea (3)

1. Uste dut familiek errespetatzen nautela
2. Uste dut familiek nire lana baloratzen dutela
3. Familiaren batek mehatxu edo irain egin didate (alderantzizko zentzuan)

3. BIZIKIDETZARI JARRITAKO OZTOPOEN BALORAZIO GLOBALA, IRAKASLEEN ARABERA

1. Irakasleek egokitzeko dituzten arazoak (8)

Ondoko arazo hauek zenbateraino oztopatzen dute bizikidetza?

1. Irakasleek gai hau lantzeari uko egitea, haien egitekoa ez dela uste izateagatik
2. Irakasleek aldaketari gogor egitea
3. Irakasleen gogo gabezia
4. Irakasle batzuk ikasle zailei ematen dieten tratamendu desegokia.
5. Irakaskuntzako metodo tradizional desegokiak, gaur egungo ikasleen ezaugarriekin alderatuta
6. Irakasleen prestakuntzarik eza bizikidetzak berarekin dakartzan arazoak ebazterakoan
7. Nik neuk dauzkadan zailtasunak bizikidetza hobetzen eraginkortasunez lan egiteko
8. Ikastetxean lan egiten duten profesionalen arteko koordinazio erregularraren gabezia.

2. Ikasleen eta familien arazoak (10)

Ondoko arazo hauek zenbateraino oztopatzen dute bizikidetza?

1. Ikasleek ikasgelakoak asaldatzea
2. Ikasleek irakasleei errespeturik ez izatea
3. Ikasleen eta irakasleen arteko harreman txarrak
4. Ikasle batzuek irakasleak beldurraraztea edo jazartzea
5. Ikasle batzuek beste ikasle batzuk beldurraraztea edo jazartzea
6. Irakasleek aginpidea mantentzeko dituzten zailtasunak
7. Familian diziplinarik ez izatea
8. Familiek inplikaziorik ez izatea
9. Familiek gatazken konponketa oztopatzeko egindako esku-hartzeak
10. Irakasleen babesgabetasuna ikasgelako diziplina arazoaren aurrean

3. Administrazioaren laguntza eza eta baliabide nahiko ez izatea (6)

Ondoko arazo hauek zenbateraino oztopatzen dute bizikidetza?

1. Irakasleko ikasle ratio handia
2. Irakasleen plantillaren desegonkortasuna
3. Gaur egungo erronkei aurre egiteko eskolak baliabide aski ez izatea
4. Administrazioak ez laguntzea
5. Ikasgelen egitura fisikoa desegokia izatea gaur egun hezkuntzak dituen premietarako
6. Hezkuntzako legeek modu egokian jarduten ez uztea

4. Arazoak ikastetxeko harremanetan (4)

Ondoko arazo hauek zenbateraino oztopatzen dute bizikidetzatza?

1. Irakasleen arteko harreman txarrak
2. Ikasleren batek irakasle batengandik jasotako tratu txarra
3. Jazarpen morala irakasleen artean
4. Berrikuntzak egin nahi dituen irakasle batek beste irakasle batzuegandik pairatzen duen bazterketa

5. Arazoak zuzendaritza taldean (5)

Ondoko arazo hauek zenbateraino oztopatzen dute bizikidetzatza?

1. Ikastetxeak gehiengo bere baitan hartuko lukeen proiekturik ez izatea
2. Zuzendaritza taldeak zailtasunak izatea bizikidetzaren hobekuntza gidatzerakoan
3. Zuzendaritza taldearen inplikazio eza
4. Transgresioak zuzentzeko erabilitako zehapenak eraginkorrak ez izatea hezkuntzan
5. Bizikidetzako arazo bat gertatzen denean nora jo daitekeen jakiteko zehazturiko biderik ez izatea

4. BIZIKIDETZAREN BERARIAZKO OZTOPOAK, IRAKASLEEK EBALUATURIK

1. Disrupzioa eta interes eta errespeturik eza ikasleengan (8)

1. Irakasleek ezikusiarrena egiten didate klasean
2. Irakasleek baztertzen naute
3. Berandu iristen dira klasera justifikaziorik gabe
4. Molestatzen naute eta klasea ematea eragozten didate
5. Oker erantzuten didate
6. Ez naute errespetatzen
7. Mezprezatzen naute
8. Aurre egiten didate

2. Irakasleek irakasleekin oldarkor jokatzeara (4)

1. Iraintzen, laidoztatzen edo barregarri uzten naute
2. Nire gauzak hausten edo lapurtzen dizkidate
3. Mehatxu egiten didate ni beldurrarazteko
4. Fisikoki erasotzen naute

3. Irakasleek erabili eta irakasleek onarturiko behartzeko jokabideak (8)

1. Ezikusiarrena eginez
2. Errefusatuz
3. Klasean parte hartzen ez utziz

4. Klasetik egotziz
5. Ikasketa burutzara bidaliz (zenbait ikasle)
6. Oihu eginez
7. Oker erantzunez
8. Beldurraraziz kalifikazioen gaineko mehatxuekin

4. Ikasleekin izandako jokabide erasokorrek eta beldurraraztekoak, irakasleek onartutakoak (4)

1. Irainduz, laidoztatuz edo barregarri utziz
2. Ezinikusia izanez
3. Mehatxatuz beldurrarazteko
4. Fisikoki erasoz

5. Ezinegona ikastetxearekin (4)

1. Nire lanagatik esker ona hartzen dut (alderantzizko zentzua)
2. Deseroso eta lekuz kanpo dut neure burua
3. Bazterturik dut neure burua
4. Ikastetxez aldatzea gustatuko litzaidake

6. Despertsonalizazioa eta nekadura (4)

1. Nire lanagatik emozionalki etsita nago
2. Uste dut nire lanak higitzen ari nauela
3. Uste dut ikasle batzuk objektu inbertsonalak balira bezala hartzen ditudala
4. Kezkatzen nau lan honek emozionalki gogortzea

7. Irakasleen arteko harreman arazoak (isolatzea, jazarpena) (4)

1. Nire lankideek nitaz gaizki hitz egiten dute
2. Gainerako lankideekiko harremanek nire lana zailtzen dute
3. Beste irakasle batzuk jazartzen naute
4. Arazo bat izan eta laguntza eskatzen dudanean, inork ez nau laguntzen

8. Arazoak familiekiko harremanean (3)

1. Familiaren bat modu iraingarri edo laidogarrian hartu izan dut
2. Familiaren batek fisikoki eraso egin dit (jo nau edo kolpeak eman dizkit)
3. Aitaren edo amaren bati fisikoki eraso egin diot (jo dut edo kolpeak eman dizkiot)

5. OZTOPOAK IKASLEEN ARTEKO HARREMANETAN, IKASLEEN EBALUATURIK

1. Ikasleen arteko gatazka (3)

1. Badira ikasleen arteko borrokak
2. Badira aurrez aurre dauden ikasle taldeak
3. Ikastetxean badira bizikidetza kaltetzen duten bandak

2. Baztertze eta laido egoeren biktimak (6)

1. Ikaskideek ezikusiarrena egiten didate
2. Ikaskideek baztertzen naute
3. Ikaskideek ez didate parte hartzen uzten
4. Iraintzen, laidoztatzen edo barregarri uzten naute
5. Nitaz gaizki hitz egiten dute
6. Nire gauzak hausten edo lapurtzen dizkidate

3. Erasoen biktimak (6)

1. Jotzen naute
2. Mehatxu egiten didate ni beldurrarazteko
3. Mehatxuekin (dirua ekartzea, atazak egitea...) egin nahi ez ditudanak egitera behartzen naute
4. Sexu izaerako esaldi edo irainekin beldurrarazten naute
5. Behartzen naute mehatxuekin edo jokabideekin edo parte hartu nahi ez dudana sexu izaerako egoerekin
6. Armeekin (makilak, labanak) mehatxu egiten didate

4. Teknologia berriekin jazarritako biktima (4)

1. Ikaskideren batek mugikorrarekin edo bideoarekin grabatu zaitu gero zure kontra erabiltzeko?
2. Ikaskideren batek mugikorrarekin edo bideoarekin grabatu zaitu, gero, mehatxuekin, egin nahi ez duzun zerbait egitera behartzeko?
3. Hartu duzu internet edo telefono mugikorraren bidez zu iraindu, mehatxatu, laidoztatu edo beldurrarazten zaituen mezurik?
4. Internet edo telefono mugikorrez hedatu dituzte zure argazki edo irudiak gero zure kontra erabiltzeko?

5. Jazartzailea baztertze- eta laido-egoeretan (5)

1. Ezikusiarrena eginez
2. Errefusatuz
3. Parte hartzera eragotziz
4. Irainduz, laidoztatuz edo barregarri utziz
5. Huragatik gaizki hitz eginez

6. Jazartzailea erasoetan (7)

1. Gauzak hautsiz edo lapurtuz
2. Joz
3. Mehatxatuz beldurrarazteko
4. Mehatxuekin behartuz egin nahi ez dituen gauzak (dirua ekartzea, atazak egitea...) egitera
5. Beldurraraziz sexu izaerako esaldi edo iraineekin
6. Behartuz mehatxuekin edo jokabideekin edo parte hartu nahi ez duen sexu izaerako egoerekin
7. Mehatxatuz armekin (makilak, labanak)

7. Teknologia berriak erabiltzen dituen jazartzailea (4)

1. Mugikorrarekin edo bideoarekin ikaskideren bat grabatu duzu gero haren kontra erabiltzeko?
2. Telefono mugikorrarekin edo bideoarekin ikaskideren bat grabatu duzu, gero, mehatxuekin, egin nahi ez zuen zerbait egitera behartzeko?
3. Internet edo telefono mugikorraren bidez ikaskideren bat iraindu, mehatxatu, laidoztatu edo beldurrarazten duen mezurik bidali duzu?
4. Internet edo mugikor bidez ikaskideren baten argazkiak edo irudiak hedatu dituzu, gero haren kontra erabiltzeko?

6. BIKTIMA ETA JAZARTZAILEEN PREBALENTZIA

Ondoko galderak egin aurretik jazarpena zer den azaltzen da (2)

1. Jasan duzu jazarpenik azkeneko bi hilabete honetan?
2. Azkeneko bi hilabete honetan ikaskideren bat edo batzuk jazarri dituzu?

7. ZER EGITEN DUTEN INDARKERIAREN AURREAN

1. Zer egiten duzu indarkeria dagoenean? Aukeratu erantzun bakarra (7)

1. Egoera eteten ahalegintzen naiz, nire adiskidea bada
2. Egoera eteten ahalegintzen naiz, nire adiskidea ez bada ere
3. Uste dut saihestu beharko nukeela, baina ez dut deus ere egiten
4. Ez dut deus ere egiten; ez da nire arazoa
5. Ez dut parte hartzen, baina aldi berean ez zait ongi iruditzen egiten dutena
6. Harekin nahasten naiz, baita taldea ere
7. Parte hartzen dut eta harekin nahasitako taldeari zuzentzen natzaio

2. Irakasleen jokabidea, ikasleek antzemana (5)

1. Ez dute kasurik egiten
2. Beste aldera begiratzen dute
3. Ez dakite eragozten
4. Eraginkortasunez lan egiten dute arazo horiek gerta ez daitezen
5. Egoera horietan irakasleen laguntza izan dezakegu

8. BIZIKIDETZAREN BESTE OZTOPO BATZUK, IKASLEEK EBALUATURIK

1. Helduen kontseiluak indarkeria erabiltzearen gainean (4)

1. Norbaitek jotzen bazaitu, zuk ere jo ezazu
2. Norbaitek iraintzen bazaitu, jo ezazu, beharrezkoa bada
3. Norbaitek iraintzen bazaitu, zuk ere irain ezazu

2. Indarkeriaren justifikazioa (11)

Hurrengo iritziekin zenbateraino gauden ados

1. Zuzena da iraindu zaituen norbait jotzea
2. Zu baino indartsuagoa den norbaitek erasotzearekin mehatxatzen bazaitu, ez kontatu inori "salatari" bihurtuko baitzinateke
3. Hartzen dituzun kolpeak beste batzuekin erantzuten ez badituzu, koldarra zarela usteko dute
4. Batzuetan beharrezkoa izan daiteke aitak edo amak bere semeari edo alabari zartako bat ematea, ikas dezan
5. Beldurra sartu behar zaie batzuei errespetu zaitzaten
6. Adiskide batek gogaitzen duen norbait jotzen duenean, zure adiskidearekin bat egin behar duzu
7. Oldarkorra ematen duen gizona erakargarriagoa da
8. Justifikaturik dago zurea zen zerbait kendu dizun norbait erasotzea
9. Zuzena da besteak batzuetan mehatxatzea izaera energetikoa duzula jakin dezaten
10. Justifikaturik dago gizon batek bere emaztea edo neskalaguna erasotzea, hark uztea erabakitzen duenean
11. Komeni da zure ikaskideei erakustea borroketan sar zaitezkeela

3. Arrazismoa eta xenofobia (2)

1. Europako zenbait herrialdetan gutxiengo batzuen kontra (marokoarrak, ijitoak, juduak...) ekintza baztertzailerik eta bortitzak sustatzen ari diren taldeak sortzen ari dira. Ados zaude talde horiek egiten ari direnarekin?
2. Botorik emanen zenioke alderdi politiko arrazista edo xenofobo bati?

4. Disrupzioa eta ikasteko interesik eza ikastetxean (5)

Ikasleak:

1. Berandu iristen dira klasera justifikaziorik gabe
2. Klasean molestatzen dute
3. Irakasleari zakar erantzuten diote
4. Irakasleari aurre egiten diote
5. Ez dute irakaslea errespetatzen

5. Ikastetxeko irakasleen portaera baztertzailera edo iraingarria (5)

Irakasleak klasean:

1. Ikasle batzuei zakar erantzuten diete
2. Ikasle batzuei ez diete uzten parte hartzen
3. Ikasle batzuk ez dituzte ikusi nahi ere
4. Beldurra sartzen dute kalifikazioen gaineko mehatxuekin
5. Ikasle batzuk iraindu edo laidoztatzen dituzte

6. Ikastetxeko irakasleen behartzeko jokabideak (3).

Irakasleak klaseetan

1. Ikasle batzuk klasetik egozten dituzte
2. Ikasle batzuk Ikasketa Burutzara bidaltzen ditu
3. Oihu egiten du

7. Ikasleek onarturiko jokabide disruptiboak (6)

Irakasleekiko jokabide desagokietan parte hartzea

1. Ezikusiarrena eginez
2. Errefusatuz
3. Mezprezatuz
4. Molestatur edo eskola ematen ez utziz
5. Aurre eginez
6. Oker erantzunez

8. Irakasleekiko jokabide erasokorrak, ikasleek onarturikoak (4)

Irakasleekiko jokabide desagokietan parte hartzea

1. Irainduz, laidoztatuz edo barregarri utziz
2. Haren gauzak hautsiz edo lapurtuz
3. Mehatxatuz beldurrarazteko
4. Fisikoki erasoz

9. Irakasleek emandako tratu bazterzailea edo laidogarria, ikasleek esandakoaren arabera (8)

1. Ezikusiaarena egiten didate
2. Baztertzen naute
3. Ez didate parte hartzen uzten
4. Klasetik egozten naute
5. Oihu egiten didate
6. Beldurra sartzan didate kalifikazioen gaineko mehatxuekin
7. Ez naute ikusi nahi ere
8. Oker erantzuten didate

10. Irakasleen jokabide erasokorrak, ikasleek esandakoaren arabera (3)

1. Iraintzen, laidoztatzen edo barregarri uzten naute
2. Mehatxu egiten didate ni beldurrarazteko
3. Fisikoki erasotzen naute

9. BIZIKIDETZA ERAIKI ETA HOBETZEKO BALDINTZAK, IKASLEEK EBALUATURIK

1. Arauen kalitatea eta gatazkak ebazteko modua (7)

1. Arauak zuzenak dira
2. Irakasleek arauak betetzen dituzte
3. Ikasleek arauak betetzen dituzte
4. Ikasleen iritzia entzuten da, arauak aldatu behar direnean
5. Irakasleei esan diezaiekegu zein den arauen gaineko gure iritzia
6. Gatazka bat gertatzen denean, saiatzen gara hura ebazten inor jo edo iraindu gabe
7. Ikasleak ukitzen dituzten erabakiak hartzen direnean, beti galdetzen zaie zein den beren iritzia

2. Sexismoaren eta arrazismoaren prebentzioa (4)

1. Arrazismoari eta arrazismoak eragiten duen kalteari buruzko jarduerak egiten dira (nola hasten den eta zein den bere bilakaera, zergatik gertatzen den...).
2. Matxismoa zer den ulertzeko eta nola zuzendu daitekeen jakiteko jarduerak egiten dira.
3. Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna praktikatzan ikasten dugu.
4. Emakumeen kontrako indarkeria lantzen duten jarduerak egiten dira (nola hasten den eta zein den bere bilakaera, zergatik gertatzen den...).

3. Hezkuntza nola egokitzen zaion aniztasunari (4)

1. Ikaskideek beste kultura edo herrialde batzuetatik datozen ikasleak ongi hartzen dituzte.

2. Irakasleek arreta egokia egiten diete beste kultura edo herrialde batzuetatik datozen ikasleei.
3. Premia bereziak dituzten ikasleek behar duten laguntza jasotzen dute beren ikaskideengandik.
4. Premia bereziak dituzten ikasleek behar duten laguntza jasotzen dute beren irakasleengandik.

4. Irakasleek ikasgelan emandako tratua, inor kanpoan uzten ez duena eta motibatzailea (4)

1. Ikasle bakoitzaren ikaskuntzaren gaineko interesa du
2. Azalpenak ematen ditu guk ulertzeko moduan
3. Klaseak interesgarriak izatea lortzen du
4. Badaki klasean ordena mantentzen

5. Hurbilekotzat hartutako beste kultura talde batzuekin harremanak izateko prestasuna (2) Gustatuko litzaizuke ikastetxean ondoko talde hauetako bateko kide den norbait lankide izatea?

- 1 Mendebaldeko Europakoak (Frantzia, Ingalaterra, Italia...)
- 2 Estatu Batuetakoak

6. Urrunagokotzat hartutako beste kultura talde batzuekin harremanak izateko prestasuna (7) Gustatuko litzaizuke ikastetxean ondoko talde hauetako bateko kide den norbait lankide izatea?

1. Asiarak (Txina, Japonia, Indonesia, Filipinak...)
2. Ekialdeko Europakoak (Polonia, Errumania, Ukraina...)
3. Ijitoak
4. Juduak
5. Marokoarrak
6. Afrikakoak (Afrika beltzekoak)
7. Latinoamerikakoak

7. Helduek indarkeriaren alternatibean ganean emandako kontseiluak (3)

1. Norbait zurekin borrokatu nahi bada, esaiozu zeure irakasleari
2. Norbaitek iraintzen bazaitu, ez iezaiozu kasurik egin
3. Norbait zurekin borrokatu nahi bada, arazoak konpontzeko beste modu batzuk badirela konbentzitzen saia zaitez

8. Kalitatezko bizikidetza eraikitzeke trebetasunak (8). Irakasten digute:

1. Gure eskubideak defendatzen
2. Gure betebeharrak betetzen
3. Gure irizpide propioa izaten, telebistan, interneten eta abarren ikusten duzunaren ganean
4. Internet erabiltzen gauza garrantzitsuak ikasteko

5. Giza eskubideak errespetatzen
6. Demokraziaren funtzionamendua ulertzen
7. Indarkeriaren alternatibak
8. Bestela pentsatzen duten pertsonak ulertzen

9. Ikasleek ikasteko egiten duten ahalegina eta duten interesa (2). Ikasleek:

1. Irakasleak dioena arretaz entzuten dute
2. Klasean ikasten ahalegintzen dira

10. BIZIKIDETZA ERAIKI ETA HOBETZEKO BALDINTZAK, IRAKASLEK EBALUATURIK

1. Bizikidetzarako arauen kalitatea eta zehapenak (5)

1. Arauak zuzenak dira
2. Irakasleek arauak betetzen dituzte
3. Arauak aldatu behar direnean irakasleek diotena entzuten da
4. Arauak ez betetzeagatiko zigorrak zuzenak dira
5. Zigorrek balio dute zigortutako portaera hobetzeko

2. Ikasleek bizikidetza arauetan parte hartzea (5)

1. Ikasleek arauak betetzen dituzte
2. Arauak aldatu behar direnean ikasleen iritzia entzuten da
3. Ikasleek irakasleei esan diezaiekete zein den arauetaz duten iritzia
4. Gatazka bat gertatzen denean, ikasleak saiatzen dira hura ebazten inor jo edo iraindu gabe
5. Bizikidetza eta diziplina arazoak ikasleekin eztabaidatzen dira

3. Arrazismoari eta sexismoari aurrea hartzea (5)

Helburu bakoitza zenbateraino lantzen den

1. Arrazismoa zer den eta zer kalte egiten duen ulertzen laguntzea (nola hasten den eta zer bilakaera duen, zergatik sortzen den, nola zuzen daitekeen...)
2. Beste kultura batzuk errespetatzen eta baloratzen erakustea
3. Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna praktikatzeko ikastea.
4. Emakumeen kontrako indarkeria lantzen duten jarduerak (nola hasten den eta zein den bere bilakaera, zergatik gertatzen den...).
5. Matxismoa zer den eta nola zuzen daitekeen ulertzen laguntzea

4. Hezkuntza aniztasunari nola egokitzen zaion (4)

Helburu bakoitza zenbatetaraino lantzen den

1. Beste kultura edo herrialde batzuetatik datozen ikasleei arreta egokia egitea
2. Beste kultura edo herrialde batzuetatik datozen ikasleak beren ikaskideek ongi har ditzaten lortzea

3. Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei arreta egokia ematea
4. Premia bereziak dituzten ikasleek behar duten laguntza izan dezaten lortzea

5. Irakasleek onartutako lankidetzan, adostasuna eta kohesioa erabiltzea (5)

1. Ikasleen arteko lankidetzan oinarritutako jarduerak garatzen ditut
2. Klasea batuagoa izateko jarduerak egiten ditut
3. Bizikidetzan arauen inguruko adostasuna sustatzeko jarduerak garatzen ditut
4. Ikasleek ikastetxeko jardueretan, hots, klaseetatik haratago doazenetan parte har dezaten bultzatzen dut
5. Klasean edo klasetik kanpo berdinaren arteko gatazka gertatzen denean, aktiboki hartzen dut parte hura konpontzen saiatzearen

6. Debatea erabiltzea (3)

1. Ikasleen iritzia errespetatzen ditut eta iritzi horiek klasean adieraz ditzaten ahalegintzen naiz
2. Klaseetan ikasleak akuilatzen ditut iritzi aniztasuna dagoen alderdi sozial eta politikoen gainean eztabaidatzera.
3. Ikasleek beren iritzia zein den aske esan dezakete klaseko gainerakoenak bezalakoak ez badira ere.

7. Irakaskuntza inklusiboa (4)

1. Ikasle bakoitzaren ikaskuntzaz interesaturik dago.
2. Ikasleek ulertzeko moduan azaltzen ditut gauzak
3. Ebaluazioaren iritzia eta emaitzak ulertzen laguntzen diet, ebaluazioa zuzentzat har dezaten
4. Ikasle guztiei hobetzeko aukerak ematen dizkieten ebaluazio-moduak erabiltzen ditut

8. Irakaskuntza motibatzailea eta disrupzioaren kontrola ikasgelan (3)

1. Klaseak interesgarriak izatea lortzen dut
2. Badakit klasean ordena mantentzen
3. Nire klaseetan edukiak egokitzen ditut eta horrek laguntzen du ikasgelan giro ona izaten.

9. Kalitatezko bizikidetzan eraikitzearen trebetasunak (8)

Nire klaseetan irakasten dut:

1. Eskubideak defendatzen
2. Beharkizunak betetzen
3. Tebistak, internetek eta abarrek transmititzen dituen mezuen gaineko irizpide propioa eratzten
4. Internet erabiltzen gauza garrantzitsuak ikasteko
5. Giza eskubideak errespetatzen
6. Demokraziaren funtzionamendua ulertzen

7. Indarkeriari alternatibak aurkitzen
8. Bestela pentsatzen duten pertsonak ulertzen
9. Gizarte trebetasunak
10. Komunikazio trebetasunak
11. Hezkuntza emozionala
12. Balioetan heztea.

10. Familietan elkarlana sustatzeko neurriak (4)

1. Familiei benetako aukerak ematen zaizkie ikastetxeko hezkuntza proiektuaren eta haren jardueren gainean erabakiak hartzen parte har dezaten
2. Familiak testuinguru egokiak dituzte ikastetxean hezkuntza jarduerak burutu eta garatzen parte hartzeko
3. Ikastetxean aldian-aldian jarduerak egiten dira familiak irakasleei hezkuntza arloan zer pentsatzen duten eta zerk kezkatzen dituen azaltzeko
4. Familiei aldian-aldian esaten zaie zein diren hezkuntza arloko proiektuak eta jarduerak

11. Ikasleak ikasten ahalegintzea eta interesa izatea (2)

1. Klasean ikasten ahalegintzen dira
2. Esaten dudana arretaz entzuten dute

12. Bitartekaritza erabiltzea gatatzak ebazteko

13. Ikasle-programa laguntzailea izatea

14. Metodologia kooperatiboa erabiltzea

15. Bizikidetzarekin zerikusia duten edukiak sartzea irakasgaien curriculumean

11. DIZIPLINA NEURRIAK, IKASLEEK EBALUATURIK

Neurri-moten maiztasuna

1. Ikasgelatik aldi baterako egoztea
2. Diziplina espedientea irekitzea
3. Ikastetxetik aldi baterako egoztea
4. Egindako kaltea konpontzea
5. Telefono mugikorra edo beste objektu pertsonal bat kendu didate
6. Kopiatzera zigortu naute
7. Leku jakin batean egotera behartu naute
8. Ikasketa Burutzara edo Zuzendaritzara bidali naute
9. Nire familiakoei abisua eman diete

Noizbait halakorik gertatu zaizu? (BAI/EZ)

1. Ikastetxe batetik noizbait egotzi eta beste batera bidali zaituzte?
 BAI EZ
2. Noizbait zigortu zaituzte erkidegoarentzako zerbitzu ematera? (ikastetxerako edo beste pertsona batzuentzako lan bat)
 BAI EZ

12. IKASLEEK DIZIPLINA NEURRIEZ EGITEN DUTEN BALORATZIOA

Ikastetxe honetan, zigorra ezartzen denean... (5)

1. Zigorrak ikastetxearen eta zigortutako ikaslearen artean erabakitzen dira
2. Zigortutako ikasleei laguntzen zaie egin dutena zergatik dagoen gaizki ulertarazten
3. Zigortutako ikasleen iritzia kontuan hartzen da?
4. Zure ustez, zenbateraino da eraginkorra zigor hori?
5. Zure ustez, zenbateraino da justua?

13. ZENBAT DENBORA ERABILTZEN DEN TEKNOLOGIA BERRIETAN ETA BESTE JARDUERA BATZUETAN (6)

Egunik gehienetan, zenbat denboraz aritzen zara ondoko jardueran hauetan?

1. Telebista ikusten
 2. Bideojokoetan
 3. Interneten, beste pertsona batzuekin komunikatzeko (txata, messenger-a, posta elektronikoa...)
 4. Interneten, filmak, bideoak, musika... deskargatzen (zu bertan zaudela)
- Prestakuntza jardueretan
5. Interneten, ikasteko
 6. Ikasteko ez diren liburuak irakurtzen

14. TEKNOLOGIA BERRIETAN EMANDAKO DENBORA HELDUEK KONTROLATU ETA GAINBEGIRATZEA (4)

Zure logelan bada telebistarik?

- BAI EZ

Zure logelan bada Interneterako sarbiderik?

- BAI EZ

Telebista ikusten duzu alboan helduren bat izan gabe?

- Ezer ez Gutxi Nahikoa Asko

Zure familiak (zure aitak, zure amak...) zenbateraino kontrolatzen dute Interneten egiten duzuna?

- Ezer ez Gutxi Nahikoa Asko

15. IKASLEEK ONARTURIKO IKASKETA EMAITZEN INGURUKO ALDERDIAK

Errendimendua norberak hautematea (1)

1. Oro har, nola baloratzen dituzu zure ikasketen emaitzak? Aukera ezazu zure batez besteko errendimendua erakusten duen erantzuna

Hezkuntzako beste alderdi batzuk (4)

1. Noizbait errepikatu duzu ikasmailaren bat Lehen Hezkuntzan?
2. Noizbait errepikatu duzu ikasmailaren bat Bigarren Hezkuntzan?
3. Zein ikasketa bukatu nahi zenuke?
 - Unibertsitateko karrera
 - Goi mailako heziketa zikloak eta erdi mailako heziketa zikloak
4. 6 urte bete aurretik (haur hezkuntza edo eskolaurreko hezkuntza) ikastetxeren batera joan zara?

16. IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA BIZIKIDETZAN (KOPURUA ETA KALITATEA)

1. Bizikidetzan trebatutako irakasleak
2. Bizikidetzaren arduradunak prestakuntzan egin dituen orduak, gaur egun arte
3. Azken ikasturtean, ikastetxe bateko irakasleek, osotara, prestakuntzan egin dituzten orduak
4. Eskuratutako prestakuntzaren ondoriozko jarduerak

FORU

AGINDUA

NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO UNIBERTSITATEAZ
KANPOKO IKASTETXE PUBLIKOETAN ETA IKASTETXE
PRIBATU ITUNDUETAN BIZIKIDETZA ARAUTZEN DUENA

GARATZEKO **EREDUAK ETA IRADOKIZUNAK**